

Hurrengo 3 urteetan, **euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana** sustatu, sistematizatu eta berau garatzeko **baliabideak jarri** nahi ditugu. .

2025-2027

>> horretarako, zer egin behar dugu? <<

Gaur egun UIKn euskararen erabilera, oro har, normalizatua dago, bai zerbitzu-hizkuntzan eta baita lan-hizkuntzan ere. Bide horretan, **euskararen erabilera mantendu eta atzera bueltarik ez emateko neurriak hartu** nahi ditugu.

KUDEAKETA OROKORRA

- Uda Ikastaroen 2026-2028 Plan Estrategikoan euskararen ardatza txertatuko dugu, eta berariazko lanketa egingo dugu horretarako.
- Planaren garapenerako eta jarraipenerako egitura iraunkorra sortuko dugu: **TALDE ERAGILEA**

LIDERGOA

- Talde Eragilean arduradunek eta langileen ordezkariak parte hartuko dute, eta planaren garapenera eta jarraipenera ardura hartuko dute.

LANGILEAK

- UIKko hizkuntza-irizpideak langile guztiei komunikatuko dizkiegu.
- Langileen harrera-protokoloan harrera-linguistikoa ere txertatuko dugu.
- Hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtuko dugu.

GAITASUNA

- Lanpostuen zerrenda plangintzaldi berriak ezarritako oinarrietara egokituko dugu.

KOMUNIKAZIOA ETA SUSTAPENA

- Euskara sustatzeko ekimenei bultzada berezia emango diegu: Euskaraldia eta Euskararen Eguna. Horretarako, komunikazio-plana osatuko dugu eta Talde Eragileko arduradun bat izendatuko dugu.

HIZKUNTZA-KLAUSULAK

- Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatuko ditugu; horretarako, hizkuntza-klausula ereduak aztertuko ditugu.
- Inpaktu handiko kontratu bat aukeratuko dugu, eta hizkuntza-klausulen jarraipena eta betetze-maila neurtuko ditugu.

HERRITARREKIKO HARREMANAK

Herritarrei eta bezeroei eskaintzen zaizkien ikastaroetan eta ekitaldietan hizkuntza-kudeaketa landu eta adostuko dugu:

- Irekiera instituzionaletarako protokoloa landu eta osatuko dugu.
- Euskarazko ikastaroen eskaintza ugaritzeko neurri berriak adostu eta abian jarriko ditugu

- Ikastaroetan jarraituko ditugun hizkuntza-irizpideak zehaztuko ditugu.
- Euskarazko ikastaroen eskaintzaren datu-basea osatuko dugu (nahiz eta ikastaroek ez aurrera egin); gure eskaintza zein den jakiteko.

BARNE-HARREMANAK

Lankideen arteko hizkuntza-ohituretan eragitea da helburua; horretarako, hizkuntza-ohituretan eragiteko dinamika antolatuko dugu.

KANPO-HARREMANAK

Sektore publikoarekin, oro har, euskaraz izaten ditugu harremanak; baina sektore pribatuaren kasuan, euskararen erabilera apalagoa da. Beraz, sektore pribatuarekin ditugun harremanetan euskararen erabilera areagotuko dugu:

- Euskarazko harremana izateko aukera duten erakunde pribatuak identifikatuko ditugu.
- Identifikazio lanaren ondoren, erakunde pribatu horiekin ahozko zein idatzizko harremana euskara hutsez egingo ditugu.

PRESTAKUNTZA

Lanerako behar dugun hizkuntza-teknikoan trebatuko gara, eta prestakuntza orokorra euskaraz jasoko dugu:

- Prestakuntza-plana osatuko dugu, eta euskaraz egin daitezkeen (prestakuntza orokorra) euskaraz egingo ditugu.
- Langileen funtzioetatik eta beharretatik abiatuta berariazko hizkuntza-trebakuntza eskainiko dugu.

BALIABIDE INFORMATIKOAK


- Euskaraz erabilgarri ez dauden baliabide informatikoak identifikatu eta euskaraz erabilgarri jarriko ditugu (besteak beste, Microsoft 365)
- UIK plataforman, euskarazko bertsioan, hizkuntza-kalitatea hobetuko dugu.

SORTZE-HIZKUNTZA

- Euskaraz gehiago sortzeko, berariazko hizkuntza-trebakuntza eskainiko dugu.
- Euskara hutsez sortu daitezkeen idatzizko dokumentazioak identifikatuko ditugu eta euskara hutsez egingo ditugu.



HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK



BI HIZKUNTZA-OFIZIALEN ERABILERARAKO JARRAIBIDE OROKORRAK



ERABILERA: ZERBITZU-HIZKUNTZA

Herritarrekin ditugun harreman guztietan bermatuko dugu bi hizkuntza-ofizialen erabilera, herritarren hizkuntza-hautua ziurtatzeko:

- Harrera hizkuntza euskara izango da eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da, bai telefonoz, bai aurrez aurre; lehen hitza euskaraz egingo dugu!
- UIKk herritarrei zuzendutako idatzi oro euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditu.
- Jasotzen diren idatziei erantzun behar zaienean, honela jokatu du:
 - Harremana euskaraz nahi duenari, edota dokumentuak euskaraz igorri dituenari, euskaraz erantzungo zaio.
 - Ele bietan jasotako komunikazioei, ele bietan erantzungo zaie.
 - Gaztelaniaz jasotako komunikazioei, oro har, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo zaie

ERABILERA: LAN-HIZKUNTZA

UIKren barne-komunikazioetan euskara erabiliko da modu orokorrean eta normaltasunez.



- Bilerak euskaraz egingo dira orokorrean eta normaltasunez, parte hartzaileen ulermena bermatuta dagoenean. Bileraren akta egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan jasoko da.
- Langileen arteko ahozko harremanak ere hizkuntza-paisaiaren parte dira, eragina duelako herritarraren hizkuntza aukeran; beraz, langileen arteko harremanak euskaraz izatea sustatuko da.
- Barne harremanetarako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.
- Sektore publikoko zein pribatuko erakundeekiko harremanak normaltasunez eta orokorrean euskaraz izango dira; eta langileek proaktibotasunez jokatu dute, lehen hitza euskaraz eginez.
- Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langile guztiek laneko testuak euskaraz sortzea bultzatuko da; eta dokumentuak bi hizkuntzetan egin behar direnean, teknologiak eskaintzen dituen baliabideak erabiliko dira.

KUDEAKETA

Hizkuntza-ofizialen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatutako da eta hizkuntza-ofizialen kudeaketa zehar lerro gisa txertatzeko neurriak hartuko dira.



- Talde Eragilea arduratuko da Planaren garapenez eta jarraipenez. Zuzendaritzak, gerenteak, komunikazioko ordezkariak eta ikaslegoaren ordezkariak hartuko du parte; eta lau hilean behin bilduko da.
- UIKk Euskara Planaren inplementazioaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu eta hizkuntza-irizpideen betetze-maila ere neurtuko du.
- Arduradun teknikoei dagokie hizkuntza-politikan lider izatea; hau da, hizkuntzen kudeaketaren ardura bere gain hartu eta euskararen erabilera sustatuko dute langileen artean.
- UIKk kudeatzen dituen dirulaguntza, kontratu, hitzarmen, lagapen eta baimen guztietako oinarri eta ebazpenetan txertatuko dira hizkuntza-klausulak, eta horien jarraipena egingo da.

IKASTAROAK

Publiko orokorrari zuzendutako ikastaro eta jardueretan euskarazko eskaintza areagotzeko neurriak hartuko dira:

- Euskarazko matrikulazioan beherapenak ezarriko dira.
- Euskarazko hitzaldiak sustatuko dira, baliabide ekonomiko zein pertsonalak ezarri.

Ikastaroak zein hizkuntzatan izango diren zehaztuko da jakinarazpen guztietan. Horretarako, honako irizpide hauek jarraituko dira:

- Ikastaroa euskaraz bada (zuzeneko itzulpena barne): euskara
- Ikastaroa gaztelera bada (zuzeneko itzulpena barne): gaztelera
- Ikastaroa ele bietan bada (zuzeneko itzulpena barne): euskara eta gaztelera. Saioaren izenburua hitzaldiaren hizkuntzan bakarrik idatziko da. Gaztelera saioen euskarri bisualetan euskararen erabilera eskatuko da; eta alderantziz.

Izenburua eta egitaraua ikastaroaren hizkuntzan idatziko dira, eta gainerako informazioa (deskribapena eta helburuak) ele bietan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez.

Ikastaroak gaztelera diren kasuetan, honela jokatu da:

- Hasierako agurra eta aurkezpena euskaraz egiteko eskatuko zaio ikastaroaren zuzendariari, horretarako behar duen laguntza eskainiz.

Ele bietan egingo dira jardueraren publizitatea eta jakinarazpenak.